

JARKI antolakunde iraultzailea borroka ideologikorako antolakunde iraultzaile, independentista eta sozialista moduan definitzen da. JARKI antolakunde iraultzailea koadro politiko osatutako antolakunde dugu zentralismo demokratikoa oinarritzat hartuta funtzionatzen duena. Hori dela eta, JARKI antolakunde iraultzailea osatzen duten kideek era aktiboan parte hartu behar dute askapen prozesua elikatzen duen dinamika ezberdinetan. Ez aginte posizio batetik, erabateko konpromisoarekin eta modu apal batean militantzia eredugarria aurrera eramanda baizik.

Hauek dira JARKI antolakunde iraultzaileak JARDUN-en baitan betetzen dituen helburu nagusiak:

- Analisi eta estrategia politikoaren diseinua.
- Lanketa ideologiko eta politikoa burutzea.
- JARDUN-en baitako antolakunde ezberdinen arteko dinamizazio papera.

<https://www.jardunkoordinadora.org/profile/jarki/>

ZUZIA boletina 1. zenbakia

<https://www.jardunkoordinadora.org/wp-content/uploads/2021/05/ZUZIA-1.-zenbakia-2021eko-maiatza.pdf>

J A R K I - R E N H I S T O R I A L A B U R R A

JARKI antolakunde iraultzailea 2017. Urteko martxoaren 18an sortu zen Arrietan. Bertan, aurreko urteetan antolakunde zein ekimen ezberdinetan parte hartutako kide ezberdinek Euskal Herriko tesituraren inguruko euren hausnarketa partekatu, eta gerora JARKI izena hartuko zuen antolakuntza markoa abiaraztea erabaki zuten.

Lehenengo batzar honetan antolakundearen lehenengo antolakuntza eredia, hurrengo 10 urteetarako ildo estrategikoa eta hurrengo hilabeteetan jarraitu beharreko ildo taktikoa nahiz burutu beharreko ekimenak, hau da, eman beharreko lehenengo pausok adostu zituzten, antolakundearen oinarri ideologikoekin batera. Izan ere, JARKI, Euskal Herri Langilearen aurreko borroka zikloaren itxieraren ondorioz periodo honetan sortu izan diren antolakuntza marko ezberdinen esperientziekin batera, Euskal Herriko panorama politikoan 10 urtez emandako noraezaren emaitza dugu.

Ziklo itxiera honek erreferente iraultzaileen eza ekarri zuen, estatuaren diskurtsoaren normalizazioarekin eta nagusitasunarekin batera. Ondorioz, Euskal Herria etsaiaren interespeko normalizazio prozesu batean murgilduta zegoen, Euskal Herri Langileak bere helburuak lortzeko antolakuntza markoen gabezia zuelarik. Testuinguru horretan, JARKI-ren sorrera batzarrean bildutako kideek, une horretan Euskal Herri Langilearen beharrezanean erantzungo zien izaera integraleko alternatiba iraultzailea gorpuzteko baldintzarik ez zegoela ondorioztatu zuten. Izan ere, erabateko desmobilizazio eta alienazio egoeran

murgilduta zegoen, normalizazio nahiz pazifikaziorengatik eta baita azken urteetako erreferente iraultzailearen gabeziagatik ere. Honi, urte horien emandako esperientzia ezberdinen arteko harreman eta talkarengatik sorturiko izugarritzko sektarismoa eta ezinikusiak nagusi izatea gehitu behar zaio. Honek jendearen engaiamendua eta parte hartzea lortzea zeharo zailtzen zuen, indarrean zegoen mesfidantza giroagatik, eta guzti honek ezinezkoa egiten zuen alternatiba iraultzailearen gauzapena. Hori dela eta, egoera hau irauli eta etorkizunean alternatiba iraultzailearen gauzapenerako baldintzen ezarpena errazteko tresna sortzea erabaki zuten, JARKI, hain zuzen ere. Honekin batera, ondorengo abaguneak identifikatu ziren epe motzera burutu beharreko borrokari zegokionez. Lehenik, borroka politikoaren izaera asimetrikoa. Bigarrenik, mobilizazioa sustatze aldera ideologizazio graduala akuilu izan behar duen luzera begirako planteamendua, horrela baldintza subjektiboen erradikalizazio jarraitua ahalbidetu eta Euskal Herri Langilea konfrontazioaren parametroetan kokatzen joateko. Hala ere, jarraitu beharreko ibilbidearen akordioa bazen ere, lan hori aurrera eraman behar zuen antolakundearen inguruko eztabaidari bide eman zitzaion, JARKI aurretik aipatutako abaguneak lantzeko borroka ideologikoa oinarri izan behar zuen koadro antolakundea izan behar zenaren adostasunera helduz.

Aitzitik, urteetako noraezetik eta zenbait dinamika militantetarik eratorritako egoerek ezinezkoa egiten zuten antolakundeak bere egitasmoen berehala ekitea, hasiera batean Bizkaian eta Araban bakarrik presentzia edukitzearekin batera 20 bat lagunez osatuta baitzegoen. Gauzak horrela, 2017. Urteko kurtso politikoa bere funtzionamendua eta dinamika militantea zehaztu, erroto zein bermatzeko antolakuntza markoak eta barne-egiturak sortu, eta gainerako herrialdeetara bideratutako sarete kanpainari ekin behar zion. Gainera, eredu militantea ezartzerako bidean aurremilitantziarako materiala prestatzen eta honi forma ematen buru-belarri aritu zen antolakundea. Horrez gain, urtean zehar lurralde antolaketarekin batera bost barne-egitura sortu zituen antolakunde iraultzaileak: Komunikazio Egitura, Formakuntza Egitura, aurremilitantzia materialaren prestaketa bere gain hartu zuena, Emakumeen Egitura, Segurtasun Egitura eta Ekonomia Egitura. 2017. urte amaieran kurtso politikoaren itxiera burutu zen, orain arte JARKI-k urtero burutu duen batzar taktikoaren bitartez.

Bertan, aurremilitantziarako materiala eztabaidatu eta onartu zen, kide guztiak aurremilitantzia prozesua burutu behar zutenaren adostasunera iritsi zelarik. Horrela, kideen formakuntza bermatzearekin batera, materialaren egokitasuna frogatu eta beharrezko moldaketak burutzea ahalbidetu zen. Era berean, sortze batzarrean adostutako ildo estrategikoari zegozkion zenbait gabezia suspertu ziren, ildoaren beraren zehaztapena burutu zelarik. Betiere, argi izanda ildo estrategikoaren helburu nagusia hau bukatzerakoan alternatiba iraultzailea osatu ahal izateko baldintzak ezartzea zela.

Epe laburrean antolakunde iraultzaileak Aurrera eraman beharreko lana argia zen, indarrean zegoen normalizazio dominantearen aurkako lan politiko, ideologiko eta diskurtsiboa bideratzea, hau burutzeko testuinguru politikoan erreferentzialtasuna irabaztea eta bere barne-egituren osotzea eta egonkortzea, hau dena askapen prozesuaren motorra izan behar zen mugimendu politikoaren eraikuntzari ekin ahal izateko.

JARKI publiko egin arte, ordea, urtebete igaro behar zen oraindik ere, periodo horretan koadro politikoak formatzera, kaptaziora eta egituratzera dedikatu zelarik antolakunde iraultzailea, barne-mailan osaketa eta funtzionamendu planteamenduari zegozkion gabeziei aurre egiten zien bitartean. 2018ko kurtsio itxieran, hilabeteetako eztabaidaren ondoren, antolakunde iraultzaileko militantziak drogen eta autodeterminazioaren inguruko posizioa finkatzen zuten ponentzia bana onartu zituen.

“Epe laburrean antolakunde iraultzaileak aurrera eramane beharreko lana argia zen, indarrean zegoen normalizazio dominantearen aurkako lan politiko, ideologiko eta diskurtsiboa bideratzea” Ildo estrategikoari zegokionez, JARKI antolakunde iraultzailea 2020. urtean publiko egitea aurreikusita zegoen, baina antolakundea ez da Euskal Herriko panorama politikotik at dagoen elementua, honen parte baizik, honengatik baldintzatua den heinean eta, beraz, gauzak askotan ez dira aurreikusitakoaren arabera garatzen. Hori dela eta, Euskal Herrian zenbait antolakundek eta mugimenduk martxan jarritako dinamikak eta hartutako posizioak etorkizunean JARKI-ren planteamendu politikoa alboratuta edota ezerezean geratzea eragin zezaketen, alternatiba iraultzailearen osatzeari begirako ildo estrategikoaren gauzapena ezinezkoa eginez.

Testuinguru horretan, antolakunde iraultzaileak 2019. urteko Gudari Egunari begira publiko egiteko erabakia hartu zuen. Horretarako abuztuan hasi zen bi fasetako kanpaina abiatu zen. Lehenengo faseak Euskal Herrian zehar pegada masiboen bitarteko kanpaina komunikatiboa izan zuen oinarri, Euskal Herri Langilearengan zirrara eta jakin-mina sortu eta,aldi berean, Euskal Herriko txoko guztietara ailegatuta antolakundearen gaitasun operatiboa erakustea zuen helburu. Behin hori eginda, kanpainaren bigarren faseari ekin zitzaion irailean, Gudari Egunaren beraren inguruko lanketa burututa, eta bere sorreratik burutu izan duen Gudari Eguneko ekitaldia aurrera eramanez.

Antolakundearen gaitasun operatiboa eta lanerako prestutasuna agerian bazen ere, eta Euskal Herriko txoko ezberdinetan jendea JARKI-ren inguruko informazio eske bazebilen ere, antolakunde iraultzaileak ez zuen lortu bere helburu nagusia, hau da, JARKI-ren nondik norakoak ezagutzera ematea. Honek bide eman zien antolakundearen inguruko gaizki-ulertuei zein intentzio makurra zeukaten manipulazioei. Hala ere, antolakundeak bere lan politikoari eusteko konpromiso irmoa zeukan, Gudari Eguneko kanpainaren ondoren, abenduan konstituzioaren aurkako kanpainarekin beste jauzi kualitatibo bat emateko erabakia hartu zuelarik. Bide horretan, abenduaren 6an manifestazioa burutu zuen Durangon, liburu eta disko azokaren testuinguruan. Lan publikoaz aparte, ordea, antolakundeak barne-mailako sukalde lana izan zuen lehentasun gisa, eragile ezberdinekiko harremanei ekin zelarik. Hauen artean aipagarriak dira Bultza Herri Ekimenarekin eta Eusko Ekintzarekin burututakoak. Bestalde, 2019an JARKI-k bere Lehen Euskal Herriko Mahaia, antolakundeko militante guztiak bildu eta orotariko erabakiak hartzeko gaitasuna duen organoaren bilkura burutu zuen. Lehenengo Euskal Herriko Mahaian, antolakundeak jorratu behar zituen lan esparruak eta borroka moldeak zehazten zituen dokumentua eta bere oinarri ideologikoak garatu, eta Euskal Herri Langilearen eta prozesu iraultzailearen subjektua izan behar den Euskal Langileri Iraultzailearen teorizazioa jasotzen zuen ponentzia onartu zituen. Aipagarria da, militantzia kritikoak Euskal Herriko Mahaian jokatutako papera, egituretatik era ofizialean aurkeztutako hiru ponentzietatik bat alboratu baitzuen. Lan ildo zehazten zuen ponentzia hainbat emendakinekin onartua izan zen eta ildo ideologikoaren

zehaztapena inplikatzan zuen ponentzia, berriz, atzera bota eta militante talde batek aurkeztutako kontraponentzia onartu zuten militantziak gehiengo zabal batekin.

2019ko abenduan JARKI-k bere urteko plangintza taktikoa onartu zuen. Honek, urte luzeetan zehar mantendu beharreko sukalde lanari erreferentzia egiteaz gain, urtarriletik kurtso politikoari martxora arte luzatu behar zen sozializazio kanpainarekin hasiera ematea aurreikusita zuena, antolakundearen inguruko nahasmena argitzera bideratuta zihoana.

Hala ere, antolakundearen gabeziak zirela eta, kanpaina honi otsailean ekin zitzaion, Martxoaren 8ko kanpainarekin kointziditu behar izan zuelarik.

Martxoaren 8ari begira, antolakunde iraultzaileak bere lana kanpaina komunikatibo batean zentratzea erabaki zuen, bere mobilizazio gaitasun urriaren eta feminismoari zegokionez zeukan erreferentzia ezaren kontziente izanda.

Bultza Herri Ekimenarekin eta Eusko Ekintzarekin izandako batzarrei zegokienez, garbi ikusten ari zen antolakundearen arteko sintonia zegoela eta baita hauen arteko elkarlana sustatzeko koordinazio markoak ezartzearen beharra ere. Horrenbestez, hiru eragileek etorkizuneko alternatiba iraultzailearen hazia izan behar zenaren osaketarako negoziazioei ekin zieten.

Hauen ondoren, 2020ko otsailerako, JARDUN koordinadora izango zenaren lehenengo funtzionamendu parametroak eta oinarri ideologikoak eztabaidatu eta adostu ziren eragile ezberdinen artean. Dena dela, uztailearaino itxaron behar izan zen oinarri hauek militantzia guztiarengatik adostuak eta erabakiak izan ziren arte. Bide horretan, **Askatasun Haizea** Busturialdeko taldea JARDUN izan behar zenaren osaketa prozesuari batu zitzaion.

Covid-19ren harira inposatutako itxialdian zehar antolakunde iraultzaileak ezin izan zion bere funtzionaltasun eta operatibotasunari eutsi, deseginda egon zelarik de facto garai honetan.

Behin itxialdia bukatutakoan, berregituratzeko eta berriz martxan jartzeko hilabete eta erdiko denbora tartea behar izan zuen. Antolakundea berreraikitze eta funtzionamenduari berrekiteko militante guztiak bildu zituen batzarra burutu zen.

Bertan, emandako gabezien eta akatsen inguruko hausnarketa partekatu ondoren, denen artean hauek ekiditeko konponbideak eta etorkizunean jarraitu beharreko ildoaren inguruko erabakiak hartu zituzten militanteek. Kaleko lana zein presentzia berreskuratzeko asmoz eta Covid-19ren ondorioz sorturiko egoera soziopolitikoari erantzuteko helburuaz, antolakundeak Gasteizen uztailearen 18an deitu zuen manifestaziora joateko irakurketa eta lanketa komunikatiboa burutu zuen. Hala ere, hilabeteko lanketaren ondoren, herri langilearen erantzuna ez zen izan aurreikusitakoa, Gasteizko kaleetan 150 pertsona bildu zirelarik.

Halaber, Eusko Ekintzarekiko akordioa itxita, Albertia Eguna abuztuaren 15era atzeratzeko erabakia adostu zen, bertan JARDUN koordinadoraren aurkezpen publikoa egiteko asmoarekin. Honen inguruko kanpaina uztailearen 18an hasi zen.

Abuztuaren 15ean, 3 urte luzeren ondoren JARKI antolakunde iraultzaileak bere ildo estrategikoko helburu nagusietako bat gauzatu ikusi zuen JARDUN koordinazio markoaren abiarazte eta aurkezpen publikoarekin. Era berean, JARDUN-en aurkezpenaren baitan antolakunde ezberdinekiko kontaktu errondak areagotu ziren, emaitza ezberdinak lortuz.

Irailaren lehen asteburuan, JARKI-k klase feminismoaren lanketari dagokionez aurreikusita zituen Klase feminismoaren inguruko jardunaldiak burutu zituen. Jardunaldi hauek 3 egunetan zehar garatzea aurreikusita zeuden arren, hainbat ezustekoren menpe egon ziren. Hasteko, Gernika udalerria eremu gorrian sartzearen ondorioz, hasiera batean baliatu nahi zen Astra gunea itxi zen eta ardunaldiak burutzeko leku barik geratu zen JARKI, hauek hasi baino 10 egun lehenago. Aitzitik, jardunaldiak mantentzeko asmoa irmoa zenez gero, hauek Durangoko Landako gunean burutzea erabaki zen, honek militantziagatik sostengatua izan behar zen esfortzu ekonomikoa suposatu zuelarik. Bertan, udaletxearen uneoroko oztopo eta trabak gaindituta, jardunaldien lehengo eguna nahiko era apalean garatu zen. Hau bukatzean, militantziak Igor Gonzalez Solaren erailketaren berri izan zuen gauean. Horrenbestez, hurrengo egunean Isabel Benitez-en lehenengo hitzaldia era telematikoa ematen zen bitartean, militantzia Durangon Bildu zen asanbladan eta jardunaldiak bertan behera utzi eta Igor Gonzalez Solaren mobilizazioetara dei egin nahiz hauetara batzeko erabakia hartu zuen, aho batez.

Albertia Eguna eta gero, JARKI antolakunde iraultzaileak Gudari Eguneko kanpaina eta ekitaldia burutu zituen. Antolakundeari ezinezkoa izan zitzaion, ordea, udan zehar drogen inguruan eta konstituzioaren aurka azaro eta abendua burutu nahi zituen kanpainak burutzea, murrizketak zirela eta. Hala ere, izaera taktikoko urteko porroten gaintik JARDUN-en eraketak izaera estrategikoko helburuen arrakasta suposatu zuen, ildo estrategikoaren izugarriko aurrerapena eragin zuelarik.

Hori dela eta, antolakunde iraultzaileak indarrean zuen ildo estrategikoa zaharkituta geratu zen.

Gauzak horrela, 2021eko urtarrilean antolakundeak Bigarren Euskal Herriko Mahaia burutu zuen. Bertan bere barne-araudia moldatzeaz gain, aktibismoari zegokion proposamena egin eta antolakunde iraultzaileak ekologismoari zegokionez klase irakurketatik eratorritako bere irakurketa eta posizionamendua finkatu zituen, baita Amnistia eta preso politikokoekiko posizioa ere. Honekin batera, aurreko ildo estrategikoa bertan behera utzi eta hurrengo 10 urteetarako ildo estrategiko berria onartu zen. Azken hau, alternatiba iraultzailearen sotasuna nahiz gauzapena bermatu eta honen itako erretagoardia funtzioa bete beharko duten olakundeen osaketa izan behar da.

Hala ere, koordinadoraren lehenengo hastapenak ez dira samurrak izan.

Mugikortasun murrizketek eta pandemiak sorrarazitako egoeran, Eusko Ekintzak, gainerako kideak informatu gabe eta urritik koordinazio markoetara bertaratu barik, 2021eko otsailean bere parte hartzea izoztuta uzten zuela egin zuen publiko bere sare sozialen bitartez. Aipatu beharra dago, **bai Askatasun Haizeak, Bultza Herri Ekimenak zein JARKI** antolakunde iraultzaileak sare sozialen bitartez izan zutela erabaki honen berri.

Dena dela, urritik agertu gabe egon ondoren, eragile lokalek eta JARKI-k Eusko Ekintza koordinadoratik kanporatzeko erabakia hartua zuten, hauek informatu ondoren publiko egiteko asmoa zegoelarik. Izan ere, JARDUN-eko erabakiak antolakunde guztiengatik partekatua eta eztabaidatua izan behar zirenez gero, urritik koordinadora blokeatuta zegoen.

JARKI-ren 2021eko urte hasierari dagokionez, praktika politikorako hilabete latzak izan dira aurtengoak.

JARKI-k bere indar guztia JARDUN-era bideratzeko asmoa dauka, aurtengoak sukaldeko lana eta koordinadorak martxan jarritako Ekimen Feminista, Ekimen

Antierpresiboa eta masa borroka bere gain hartu behar duen antolakunde legalaren osotzea babestea eta laguntzea baitira. Era horretan, JARKI-k JARDUN-ek martxan jarritako dinamika ezberdinetan eta koordinadora osatzen duten antolakunde ezberdinekiko elkarlan estuan dihardu, alternativa iraultzailea ezagutzera emateko dinamiketan eta honen aurkezpen ezberdinetan parte hartze aktiboa izan duelarik.

Era berean, 2021ean antolakundeko tokian tokiko taldeak izaera lokaleko dinamikak martxan jartzen hasi diren urtea izan da, Zuziako berrien atalean ikus daitekeen bezala. Hala ere, ziur gaude asko direla 4 urte hauen errebasoan zehar bidean ahaztu ditugun gertakari zein ekimenak eta ziur gaude, gainera, oraindik asko direla JARKI-k alternatiba iraultzailearen baitan bere historiari dagokionez eman beharreko pausoak. Dena dela, argi eduki behar dugu JARKI Euskal Herri Langilearen beharrezkoen Euskal Herri Langilearen Alternatibaren baitan lerratuta bere ekarpena egin behar dion tresna dela, eta lan hori era apal eta zintzoan burutzen duen bitartean zeresana emango duela. Izan ere, kalean sumatzen den lanaz haratago, aintzakotzat hartu behar dugu, batez ere, mugimendu iraultzaile eta konfrontazio ziklo berriaren lehen hastapenak, ikusten ez den baina, hala ere, guztiz beharrezkoa den eguneroko lan isil eta jarraituaren emaitza direla. Lan hau da alternativa iraultzailea gauzatu eta Euskal Herrian prozesu iraultzailea abiaraztea ahalbidetuko duena.

ZUZIA boletina 1. zenbakia

<https://www.jardunkoordinadora.org/wp-content/uploads/2021/05/ZUZIA-1.-zenbakia-2021eko-maiatza.pdf>

Z E R D A J A R D U N ?

Z E R D A J A R D U N ?

Euskal Herri Langileak konfrontazioan oinarritutako ziklo politiko berri bat ireki behar du parametro iraultzaileetan, Euskal Herriko langileriak botere politikoa lortzerako bidean. Horretarako beharrezkoa da helburu hau eta egiteko hau aurrera eramateko tresna eta antolakuntza markoak eratzea. Bere lehen hastapen hauetan, antolakuntza markoak Euskal Herrian prozesu iraultzailea muturreraino aurrera eraman behar duen subjektu politikoa osatu eta antolatzeke eta borrokatzeke tresnez hornitu beharra dauka. Izan ere, subjektu politiko osotu batek bakarrik gara dezake Euskal Herri Langileak beharrezkoa duen konfrontazioa.

Gauzak horrela, JARDUN Euskal estatu independente eta sozialista baten erdiespenerako borrokan diharduten antolakundeen multzoa barnebidu behar duen irudia izan behar da, Euskal Langileri Iraultzailearen antolakuntza markoa, hain zuzen ere. Estrategia eta minimo amankomun baten pean diharduten antolakundeek, bakoitzak bere lan ildo era autonomoan eta espezifikotan landuz baina, betiere, bide-orri eta estrategia komun baten pean. Horrela, alternativa iraultzailearen helburu taktiko-estrategikoak txertatuz euren lanketa esparruetan, euren jardunarekin prozesu iraultzailea elikatzen dutelarik aldi berean.

Hala ere, JARDUN-ek koordinadora forma hartzen du, maila nazionalean izaera estrategikoko zein politikoko koordinazio markoa eratuz, maila lokalean Euskal Herriko eskualde ezberdinetan koordinazio esparruak osatzen dituen bitartean. Izaera nacional eta lokalaren arteko mailakatzea ekidin eta bi perspektibak uztartzeko gai den eredu ezartzea da planteamendu honen helburu nagusia, alternativa iraultzailearen izaera integralean sakontzeko asmoz.

Koordinadora formatua hautatu izana ez da ausazko erabakia izan, izan ere, egun Euskal Herriko panorama politikoko inongo antolakundeak ez dauka Euskal Herriko langile klaseak aurrera eraman behar duen prozesu iraultzailearen osotasuna bere gain hartzeko gaitasunik. Hori dela eta, beharrezkoa da indarrak batzea, antolakunde eta ikuspuntuak partekatu eta minimo batzuen logikan erabakiak era adostuan hartzeko. Koordinadoraren baitan egiteko eta funtzio zehatza betetzen duen antolakunde bakoitzak, bere ikuspuntua erantsiz, koordinadoraren erabakiei osotasuna ematea ahalbidetzen baitu.

Bide horretan, Euskal Herri Langilearen Alternatibak ideologia eta parametro iraultzaileen baitan barnebidutako antolakundeen borroka marko eta bilgune izan behar du. Jada existitzen diren antolakuntza eta borroka tresnak batzeko gai izanda edota testuinguru politikoa eta unean uneko baldintzen arabera, ildo estrategikoa jarraiki alternatiba iraultzaileak bere helburuak erdiesteko sortzeko gai izan behar dena.

Azken finean, Euskal Herri Langilearen alternativa konfrontaziorako tresna izan behar da. Euskal Herri Langilearen Alternatibaren izaera estrategikoa dela eta,

JARDUN-en aliantza politika beti izaera taktikokoa izango da, garrantzi berezia emanaz berau osatzen duten antolakunde ezberdinek maila sektorialean euren lana aurrera eramateko burutzen duten elkarlanari. Batez ere, herri mugimenduko antolakundeei dagokienez. Horrela, JARDUN-eko militante eta antolakunde bakoitzak bere ekarpena eremu politiko zehatzetara bideratzen badu ere, militante guztiak estrategia eta helburu politiko komunak dituen proiektu politiko baten kide izanik.

JARDUN – Euskal Herri Langilearen Alternatiba

<https://www.jardunkoordinadora.org/wp-content/uploads/2021/08/ZUZIA-2.-zenbakia-2021eko-uztaila.pdf>

Aurreko Zuzian ikusi genuenez, JARKI antolakundearen apustu estrategikoa euskal estatu independente eta sozialistaren erdiespena helburu duten norbanako zein antolakunde iraultzaileak batu, eta estrategia beraren pean jarriz prozesu iraultzailea Aurrera eramateko antolakuntza markoak eratzea da. Antolakuntza marko horiek JARDUN - Euskal Herri Langilearen Alternatibaren forma hartu dute.

JARDUN, Euskal Herriko eragile ezberdinez osaturiko koordinadora da, independentista, sozialista eta iraultzailea.

Koordinadoraren oinarriak “Txinparta” izeneko dokumentuak jasotzen ditu. Bertan, mínimo ideologikoak, JARDUN-en definizioa eta funtzioa, berau osatzen duten antolakundeena eta barne antolaketa eta funtzionamendua zehazten dira.

Azkenik, koordinadoraren programa politikoa jasotzen da. Bide honetan, Euskal Herri Langilearen Alternatibaren parte den edo berari batu nahi zaion edozein antolakundek Txinpartan jasotako oinarriak onartu eta errespetatu behar ditu, dagozkien lan-ildoak lantzeko autonomiarekin baina JARDUN-en zehaztapen taktiko eta estrategikoak barneratuz eta elikatuz.

JARDUN - Euskal Herri Langilearen Alternatibaz hitz egiten dugunean, Euskal Herri Langilearen beharrezkoak aiseko dituen osotariko alternativa politikoz ari gara, ideologia eta alternatiba politiko bat elkarbanatzen duten antolakunde, borroka marko eta militanteen bilgune izan behar duena.

Izan ere, Euskal Herrian sortzen diren borroka esparruen aurrean, tresna ezberdinak behar dira egunerokotasunean agertzen diren trabak modu efektiboan gainditzeko.

JARDUN, Euskal Herriko masa kritiko independentista eta sozialista aktibatzeke eta antolatzeke tresna izateko asmoz sortu da, bere eguneroko lan apalaren bitartez lortu beharreko erreferentzialtasuna baliatuta, estatu zapaltzaileekiko hausturara eramango gaituen prozesu iraultzailea gidatzeko gaitasuna garatuz.

Erreferentzialtasun hori garatzeko bidean zintzotasuna, apaltasuna eta gardentasuna beharrezkotzat ikusten ditu JARDUN-ek, eta bide horretan, jarrera makurrak eta ezkutuko manipulazioak ekidingo ditu eta formalki jasotako funtzionamendua bermatu.

Ez da bide erraza izaten ari baina gezurraren eta jarrera toxikoen normalizazioak ezinikusiak, konfiantza eza eta militantzia eredu ustelen birproduzioa besterik ez du ekarriko. Hala, norbanako edo kolektiboren batek Euskal Herri Langilearen Alternatiban zatiketarik edo arrakalak sustatzea, funtzionamendu eta egituraketa informaletan erortzea edota bestelako antolakunde zein markoetan entrismoa praktikatzea kanporaketarako arrazoiak izango dira.

JARDUN konfrontaziorako tresna da, konfrontazioa estatu zapaltzaileen boterea higatu eta, aldi berean, kontrabotere espazioak sortzen joateko prozesu gisa ulertuz. Gauzak horrela, koordinadorak estatuen errepresioari aurre egiteko beharrezkoak diren egiturez hornituta egon beharko du. Era berean,

bere baitako militantzia, antolakunde eta taldeen arteko elkartasuna ere bultzatu beharko du, komunitate sozio-politikoak eratzearen praxia berreskuratuz, bere gorputz soziala osatuz joateko.

Honez gain, desbideraketa ideologiko eta politikoak ekiditeko, pentsamendu kritikoaren sorrera eta militantziaren etengabeko formazioa funtsezkoa eta lehenetsuzkoa izango da beti.

Koordinadoraren baitako antolakundearen batasunak ez du JARDUN-etik kanpo kokatzen diren taldeekin elkarlana ukatzen. Are gehiago, veste antolakundeekin maila ezberdinetan politika sektorialak aurrera eramateko elkarlanean garrantzia emango zaie, bereziki, herri mugimendu zein mugimendu sozialekin, betiere hauen independentzia eta funtzionamendua errespetatuz.

Hala ere, koordinadoraz kanpoko taldeekiko aliantza politika izaera taktikokoa izango da beti.

Koordinadorak aurrera eramango dituen aliantza estrategikoak bere baitako antolakundearen artekoak izango dira, hots, koordinadora antolakunde ezberdinen arteko aliantza estrategikoa da. Bertara batu nahi duen antolakunde orok, Txinparta dokumentuan jasotakoa onartzeaz gain, ondo definitutako funtzionamendua eta egituraketa izan beharko ditu eta dagozkion marko eta egitekoetara mugatu beharko da.

JARDUN eta prozesu iraultzailea Askapen prozesu batean subjektu politiko ezberdinek hartzen dute parte. Borrokaren garapenean zehar aktore politiko bakoitzaren parte hartze, kontzientzia maila eta aktibotasunaren arabera, masa kritikoaren eta masa numerikoaren arteko mailakatzea ematen da.

Masa kritikoa, kolektiboki antolatutako persona multzoa da, askapen borrokaren baitan dabilten eta parametro iraultzaileetan lerratuta dauden militantez osatua. Masa kritikoari zuzenki loturik dago abangoardia kontzeptua.

Abangoardiaren mintzo garenean, espazio eta denbora zehatz batean masa kritiko batek burutzen duen funtzio sozialaz ari gara.

Masa kritiko batek askapen borrokan bidea irekitzea lortzen duenean eta, bere lanaren ondorioz, masa handiago batengan lortu duen erreferentzialtasuna eta zilegitasunaren bidez honek jarraitzea lortzen duenean betetzen du abangoardia funtzioa. Beraz, abangoardia ez da nork bere buruari jartzen dion etiketa praktika politiko arrakastatsu baten bidez masa kritiko bati onartzen zaion izatea baizik, betierekoa ez dena. Abangoardiaren papera praktika iraultzaile, konprometitu, koherente, zintzo eta apalaren bitartez lortzen den funtzioa da. Denbora luzez garaturiko praktikaren emaitzak erakusten du zeinek duen iraultzaren antolaketaren bidean aurrerapausoak emateko gaitasuna eta ahalmena.

JARDUN koordinadoraren existentziak masa kritiko baten existentzia bera suposatzen du, hau da, aktibaturiko eta parametro iraultzaileetan lerratutako militante ezberdinen antolakuntza kolektiboa, apurka-apurka hedatuz eta bere antolakuntzan eta praktikan sakonduz joan behar duena. Baina abangoardiaren funtzio soziala betetzeko, antolatu gabeko Euskal Herri Langileko norbanako zein sektoreak erakartzea funtsezkoa da. Honetarako, konfrontazioa eta presentzia politiko jarraitua ezinbestekoak dira, gero eta zapalduen sektore gehiagok helduz irekitako bideari, eta parametro iraultzaileetan kokaturiko antolakuntza eta borroka garatuz prozesu iraultzailea elikatu. JARDUN -Euskal Herri Langilearen Alternatiba askapen nazional eta sozialaren aldeko borrokaren gakoak markatzeko gai izan behar da.

Masa kritikoaren beste aldean masa numeriko deritzona aurki dezakegu. Masa numerikoa, masa kritikoaren lanari esker antolakuntzaren biderei ekiten diotenean osatzen dute. Antolakuntzaren parte dira, baina ez dute oraindik askapenaren bidea irekitzearen funtzioan parte hartzen. Hau da, ez dute estrategia eta taktikaren zehaztapenean parte hartzen. Masa kritikoak abangoardia gisa garatzea lortzen badu, masa numerikoa erretagoardia funtzioa betetzen hasiko da, hau da, abangoardiari bultzada ematen, hau elikatzen eta etsaiaren erasoengandik eta aurrerapausoengandik babesten. Abangoardia eta erretagoardia subjektu politiko koherente baten parte diren eta elkarloturik dauden bi alde dira. Bien arteko komunikazio zuzena dago eta nahiz eta bakoitzak askapen borrokan funtzio bat bete, bata ezin da bestea gabe ulertu.

Bi funtzio hauek konpromiso eta egituraketa mota ezberdinak eskatzen dituzte. Honek, Euskal Herri Langilearen pluraltasunaz elikatu eta bere baitan aurkez daitezkeen norbanako eta kolektibo ezberdinen parte hartzerako espazioak sortzeko aukera eta beharra dakartzko koordinadorari, aktore bakoitzak bere gaitasunaren arabera prozesu iraultzaileari ekarpena egin diezaion.

Herri mugimendua prozesu iraultzailean Euskal Herrian badira, tokian toki, estrategia politiko nazional batekin bat egin gabe ere "eraldatzaileak" diren hainbat subjektu politiko. Hauetako asko "herri mugimendu" deritzonaren zati dira. Herri mugimenduko parte diren aktoreak osaera aldetik nahiko heterogeneoak izan ohi dira, hots, oinarri ideologiko zabalak izan ohi dituzte eta espektro politikoko esparru ezberdinetako jendez osatuta egon ohi dira. Oro har, talde lokalak dira, nahiz eta kasuan kasu antzeko edota inguruko herri mugimenduko bestelako taldeekin koordinazio marko ezberdinak abiarazi izan dituzten.

Herri mugimenduaren izaeratik beragatik albo batera utzi behar dira honek prozesu iraultzailean bete beharreko paperaren idealizazioak. Izan ere, herri mugimendua prozesu honen erdigunean jartzeak lokalismoan eta espontaneismoan erortzea, planteamendu nazional koherente eta egingarri bat aurrera eramateko ezintasuna eta herri mugimenduak kontrolatu nahia ekar baititzake, besteak beste. Bestalde, aipaturiko ezaugarriengatik herri mugimenduak ezin du Alternatiba Iraultzailearen atal organiko izan, honek lerro politiko jakin bat ezartzea, antolakuntza marko ezberdinetara azpiratzea eta, beraz, herri mugimendu izaeraren galera suposatzen baitu.

Honela, nahiz eta herri mugimenduak masa numerikoa elikatzeko orduan garrantzia handia duen, masa kritikoarekiko harreman organikorik ez duenez, ez du erretagoardia funtzioa betetzen. Aldi berean, argi geratu behar da masa kritikoaren funtzioa ez dela herri mugimendua kontrolatzea, hauek bere interesen alde jardun dezaten.

Horrez gain, Euskal Herri Langilearen Alternatibak esperientzia ezberdinen akatsetatik ikasi eta mugimendu forma gainditu beharra dauka. Hau da, koordinadorara batuko diren taldeak formalki jasotako egituraketa eta funtzionamendua duten antolakundeak izan beharko dira eta ez "mugimendu" edo "sare" informal gisa diharduten eragileak. Talde hauek, posizio eta izaera difusoak zein funtzionamendu informala gailentzeko joerak izan ohi dituzte, autonomadak eta argitasun falta bultzatuz.

Sektorializazioa, zatiak eta osotasuna

Antolakunde batek ezin du askapen prozesuaren karga guztia bere gain hartu. Horretarako, espazio politiko berriak sortu behar dira askapen prozesuaren

baitan kokatzen diren borroka esparru espezifikoak lantzeko hala nola antolakunde antierpresiboa, emakume langilearen auzia landuko duena, proiektu komunikatiboa...

Antolakunde sektorial hauek izaera nazionala edukiko dute eta aipatu bezala hauek izango dira JARDUN-en erabaki marko nagusian ordezkatuak egongo direnak.

Antolakunde sektorial bakoitzak, dagokion esparruan egingo du lan, bikoizketak (funtzio bereko bi antolakunde egotea) ekidinez eta berari egokituko zaio koordinadoraren baitan borroka sektorialak estrategia amankomunari lotzea eta honi ekarpena egitea. Marko bakoitzak bere plangintza eta tenporizazioa edukiko ditu, bere erritmo, behar eta dinamika propioak, zeinak, bere militantziak erabakiko dituen. Honez gain, koordinadoraren oinarri ideologiko eta estrategiaren gainean eraikitako diskurtso propioa izango du esparru bakoitzak. Euskal Herriko subjektu iraultzaile gehienak mobilizatzeko helburuarekin, gardentasun osoz eta sektarismoa gaindituz, dinamika ezberdinetan buru belarri jardungo duten militanteak aktibatzeke espazio sektorial zabalak osatu behar dira.

Logika estrategikorik gabe, epe luzerako begirada galdurik eta egungo errealitateari Alternatiba Integral bat eskaini ezinda jarduten duten antolakundeak ez dira inoiz taktizismotik edota esperientzia isolatuetatik baino haratago joaten.

JARDUN Euskal Herrian parametro iraultzaileetan garatzen den esperientzia ororen bilgune izan behar da, hauei logika estrategikoa erantsiz eta proiektu politiko baten osotasunaren parte bilakatuz. Horrela, borroka ezberdinak aurrera eramatea bermatzeaz gain, borroka hauek Alternatiba Iraultzailearekin bat egitea ahalbidetzen da, era isolatuan ulertutako borrokek kolektibo bilakatuz eta hauen indarra eta elkarreragina areagotuz.

Laburbilduz, JARDUN-ek konfrontazioaren eta aktibitatearen bidez Euskal Herri Langilearen ideologizazioa eta antolaketa jarraitua sustatu behar ditu, lan etengabearen, zintzotasunaren eta proiektu politikoaren egokitasunaren bidetik masa numerikoa zein kritikoa garatuz. Hau da, potentzialtasun iraultzailea duen klase soziala, Euskal Herri Langilea, borrokara lotzeko aukera eman behar du JARDUN-ek, eta masa kritiko zein erretagoardia gisa antolatzea lortu, Euskal Langileri Iraultzaile gisa klase hau subjektu politiko kontziente eta antolatu bilakatuz. Prozesu iraultzailean, beraz, kanpora begirako lanak Euskal Herri Langilearen Alternatibaren funtzio nagusietako bat izan behar du. Azken finean, zenbat eta Euskal Herri Langilearen sektore gehiago batu JARDUN-era, Euskal Herri Langilearen Alternatibak orduan eta ahalmen handiagoa izango du borroka garatzeko.

JARDUN

OINARRI IDEOLOGIKOAK

Independentzia eta nazio askapena

Espainiar eta frantziar estatuek, Europar Batasunarekin batera, Euskal Herriaren existentzia eta izaera politikoa bera ukatzen dute. Ez soilik ukatu, baita zapaldu ere. Historiak erakutsi digu bi estatu hauek gutxiengo nazioenganako duten errespetua zer nolakoa den. Ez dago biderik haiekin batera gure izaera propioa aldarrikatu nahi badugu. Nazio askapena independentziaren bidetik dator ezinbestean Euskal Herriaren kasuan.

Argi izan behar dugu ukatua den sentipen nazionala prozesu sozial eta historiko baten ondorio zuzena dela. Euskal Herriaren garapen historiko eta sozialaren ondorioz sortu da sentimendu nazional bat, bere oinarria bereziki euskaran aurkitzen duena. Egun, espainiar eta frantziar estatuek beren izaera okupatzailea mantentzen jarraitzen dute, Euskal Herriaren askatasun nazionala ukatuz (zer esanik ez klase esparruan). Hau dela eta, euskaldunon izaera ukatzen dute etengabe.

Estatu hauen legediak berak gure existentzia ukatzen du, frantziar estatuak euskaldunon izaera eta hizkuntza ukatzen duenean, adibidez. Baita espainiar estatuaren kasuan ere, gure lurraldea Espainiaren egiturapean eta "Espainiar naziopean" jartzen duenean. Beraz, espainiar eta frantziarren izaeratik desberdinduta dagoen eta ukatua den kolektibotasun soziala (nazio zapalduaren forma hartzen duena) osatzen dugu.

Era berean, euskararen kontrako erasoek argi uzten dute espainiar eta frantziar estatuen partetik ez dagoela euskaldunon existentzia errespetatzeko borondaterik. Etengabeko errepresio kulturala jasaten dugu gure nortasunaren oinarri diren elementu ezberdinei eraso egitean. Horregatik, ezin dugu gure izaera propioa ukatzen duen markoan mantendu.

Gauzak horrela, Iparraldeko eta Hegoaldeko egoerak bereizi behar ditugu. Hegoaldean hizkuntza ofizialaren estatusa du euskarak. Nahiz eta sasi-ofiziala izan, Nafarroan euskara gutxiesten duten berezitasunak mantentzen dira. Modu orokorrean gaztelarak du lehentasuna hegoaldean. Iparraldean, euskara galzorian dago. Frantziar estatua eratu zenetik hizkuntza bakarra onartu zuen bertan: frantsesa. Hamaika dira euskarak bere biziraupen eta sustapenerako erakunde publikoen aldetik jasotzen dituen zailtasunak zein eraso zuzenak.

Argi dago, beraz, espainiar eta frantziar estatuek Euskal Herriaren izaera politiko, sozial eta kulturala ukatzen dutela. Hau horrela izanik, eta nazio sentipen desberdindu bat osatzen dugun heinean, ezin dugu estatu sasi-inperial hauek eskaintzen duten testuinguruan garatu gure borroka politikoa.

Gure izaera propioak ez du esan nahi beste herriak baino hobeak garenik. Ez gara txobinismo joeretan jausiko. Hala ere, hori ez da aitzakia euskaldunon kultura eta hizkuntza zapaltzeko. Ukazio honetatik sortzen da nazio askapenaren borroka, klase gatazkari elkarlotuta dagoena, eta dominazio erlazio bat suposatzen duen heinean gainditu egin behar dugu gure izaera bera ukatzen duen testuinguru politikoa.

Esan beharra dago nazio auzia, klase parametroetan ulertzen dugula. Horregatik, nazio askapena Estatu Sozialistaren eraikuntzatik pasatzen da. Ezin gara jausi burgesiak defendatu ohi duen independentzia prozesuen defentsan. Izaera nazionala bereganatzen duen klase burgesak, sentipen horrekiko aurkezten duen atxikimendua erabiltzen baitu bere interesak hobekien defendatzeko medio bezala. Ondorioz, defendatzen dugun nazio askapena, independentzia eta sozialismoaren eraikuntzan oinarritzen da. Ezinezkoa dugu askapen nazionala edota soziala burutzea, ez bada bi elementu hauek oinarri dituen prozesu batetik abiatzen.

Ez gara bi faseen arteko logikan murgilduko (lehenengo independentzia eta gero sozialismoa). Emakumearen askapenarekin batera, borroka berdinen alde ezberdinak diren heinean, gure helburuak lortzea estatu sozialista eta independente baten eraikuntzan datza. Independentzia sozialismoaren eskutik izango da, edo ez da izango. Era berean sozialismoa independentziaren eskutik ematen ez bada, ez da benetako sozialismoa izango.

Amnistiaren inguruan

Herri honen historian zehar, Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokan jardun dute hainbat militante iraultzailek. Askapen prozesuaren hasieratik, frantziar eta espainiar estatuak bere jarrera errepresiboa argi utzi dute, Euskal Herriaren aldeko hainbat militante iraultzaile atxilotuz, torturatuz eta erailez.

Horrela, egungo egoeran, Espainia eta Frantziako kartzeletan eta erbestean ehunka preso, errefuxiatu eta deportatu daude beren borroka eredugarriaren ondorioz. Erakutsitako konpromisoagatik, Euskal Herriaren alde borrokatu duten preso, errefuxiatu eta deportatuei errespetu osoa zor diegu. Horregatik gure helburuetatik amnistiaren lorpena pasatzen da.

Gure helburuen artean amnistia kokatzen da herri honen askatasuna ezin delako Euskal Herriaren alde borrokatu izan duten militanterik gabe eraiki. Amnistia presoen askatasunaz haratago doan kontzeptua eta aldarrikapen politikoa da, baloreen aldaketan kokatzen dena. Gizartearen balore aldaketa erradikal bezala ulertzen dugu, non askatasunaren alde borrokatu izan duten militanteen hautuaren zilegitasuna onartua izango den. Bere momentuan hartutako bidea herriaren kontzientzian zilegi bihurtzerakoan lortuko da amnistia.

Amnistia askapen prozesuari loturiko aldarrikapen gisa ulertzen dugu, preso eta errefuxiatuen askatasuna eta gizartearen baloreen iraultzea, independentzia eta sozialismoaren eraikuntzaren bidean eman behar den helburua delako. Preso eta errefuxiatuta dauden militanteek zabalduko borrokaren zergatiak desagertuta lortuko da soilik amnistia. Borrokari ekiteko zergatiak desagertuz gero bakarrik bermatu ahal da

euskal militanteak preso eta errefuxiatuak bilakatu dituen jazarpen egoera berriz ez errepikatzea. Horregatik, amnistia herri honen garaipenetik pasatzen da derrigorrez. Herri honen garaipenaren seinale bihurtuko da amnistia, zapalkuntza egoeraren amaieratik pasatzen dena.

Sozialismoa eta klase gatazkaren gainditzea

Harreman ekonomiko kapitalistetan esplotazioa da legea. Langileok, ekoizpen baliabideen jabetza ez dugunok, gure lan-indarra dugu soilik saltzeko. Eta nori? Jabeei, burgesi. Estatu kapitalistak ere badira jabeak. Langileon lanetik ateratako gainbalioarekin hasita, kapital metaketa izugarria burutzen hasi ziren duela mende batzuk (mendebaldean bereziki). Egun nazioarte mailako kapital sareak, monopolioak barne, izugarriak dira. Estatu kapitalista askok baino koertzio ahalmen handiagoa dute kapital talde nagusiek, industria eta banku kapitala barnebiltzen dituen finantza kapitalak gidatuta.

Klase burgesak estatu kapitalisten baitan duen boterea itzela da. Bere helburuetara zuzenduta dago administrazio osoa, baita legedia ere. Egitura honetan kokatu daiteke, adibidez, tokian tokiko hezkuntza sistema. Egitura publikotik at, sektore pribatuaren bidez ere langileria eta zapalduoi propaganda itzela iristen zaigu. Ideologia zapaltzailea barneratzen dugu, sistemaren alternatibarik ez dagoela sinistuz.

Gure kasuan, estatuez gain europar mailako oligarkiaren proiektu politikoa Europar Batasuna da. Elkarlan ekonomikoaren izaeratik abiatu zen proiektu honek, gainegitura politiko eta judizial osoa baldintzatzen du egun: estatuetak legedia, jarrera politikoak koiuntura politikoaren aurrean... Aspektu ekonomikoak ahaztu gabe: kapitalisten mesedeetara zuzendutako neurri amaigabeak, zapalduon egoera gero eta gehiago okertzen dituztenak. Egungo Europar Batasunaren baitan ez dago kapitalismoaren alternatiba politiko integralik bideratzerik. Haien legediak argi ezartzen du merkatu askatasunak zer nolakoa izan behar duen, eta hau bete ezean zigorrak prest dituzte.

Ondorioztatzen dugu, beraz, sistema kapitalistaren baitan langileen kontrako jazarpen egoera mantenduko dela, esplotazioa sistemaren izaeraren baitan errotzen den ezaugarria baita. Esplotazio ekonomikoaz gain, ezin ditugu ahaztu lan istripuak, lan baldintza ustelak, egonkortasun eza, langile antolaketarenganako mehatxu eta jazarpena, edota munduan zehar egun existitzen diren lan baldintza esklabistak, besteak beste. Ez dago kapitalismoa zibilizatzeko biderik, bere oinarrian zapalkuntza aurkitzen delako. Errealitate honen aurrean, antolaketa forma propioak osatzera bideratu behar dugu gure lana.

Egoera hau iraultzeko gure ekarpena gure herritik bertatik hastea da lanketa ideologiko eta praktikoaren bidez. Bertako esplotatzaileak haien posizio zapaltzailetik atera behar ditugu, gure herriko baliabideak partekatuz eta Euskal Herrian dauden nazioarteko kapital inbertsioak moztuz. Aske bizitzeko, klase gatazkarekin amaitzeko, ez dago erdibideko irtenbiderik: ekoizpen baliabideak sozializatu ezean beti egongo gara hauen jabeen menpe. Antolaketa asko dago egiteko momentu horretara iritsi arte.

Ekoiuzpen baliabideen sozializazioa gauzatzea konfrontazio zuzenean sartzen da klase menperatzaileen interesekin. Ondorioz, kontziente izan behar gara indarrean dagoen boterearen eskutik ez dagoela gure helburuak betetzeko espaziorik. Hau dela eta, presente eduki behar dugu (nahiz eta egungo egoeran fikzio bat suposatu), gure esfortzuak etorkizun batean boterea hartzera bideratuta egongo diren mekanismoak diseinatzera bideratuta egongo direla.

Argi dago gaur egun boterea hartzea teoriaren esparrura mugatuta dagoen ideia dela. Hala ere, ideia hau gure perspektiba ideologikoaren baitan mantendu behar da ezinbestez. Egundakoz ez bada ere, soilik herri honen borondatearen esku dago baldintza eta testuinguru hori sortzea lan politiko konstante eta apalaren bitartez.

Klase feminismoa, emakume langileen zapalkuntzari erantzuna

Emakume langileok kapitalarengatik pairatutako zapalkuntzaren afera gainditzea du helburu klase feminismoak. Kapitalismoak bereganatu eta moldatu egin ditu aurretik existitzen ziren harreman patriarkalak, hau da, emakume eta gizonen arteko dominazio harremanak, emakumearen zapalkuntza behin eta berriz birproduzitzeko: egunerokotasuneko mespretxu keinuetatik abiatuta, gizonek burututako sexu-eraso eta emakumeen erailketak barne.

Sexu-generoen arteko dominazio harreman horiek baliatuta, kapitala emakumearen lan birproduktiboaren gaineko kontrola bermatzeaz arduratu da. Hori dela eta, birproduktio sozialean dago emakume langilearen auziaren gakoa, bera baita jardun birproduktiboaz, hots, lan-indarra berreskuratzeko beharrezkoa den zaintza lanaz arduratu behar dena: janaria prestatzea, arropa garbitzea, zaintza emozionala... Era berean, emakumearen ugaltzeko gaitasuna ere baliatzen du kapitalak, lan-indarraren belaunaldi berriak ziurtatuz sistema produktiboaren etorkizuneko jarraikotasuna bermatze aldera.

Hori gutxi balitz, emakumeek gizonekin batera produkzioan parte hartu beharra dute, burgesiak etekin bikoitza lortuz horrela. Asmo horrekin kapitalismoak jarduera birproduktiboa eta produktiboa uztartzea lortu du, ahalik eta esplotazio maila handiena burutuz baina, aldi berean, lan-indarraren birproduktioa arriskuan jartzea saihestuz. Izan ere, emakume langilearen jardun birproduktiborik gabe, burgesia lan-indarraren iturririk gabe geratuko litzateke eta, horrenbestez, esplotatzeko klaserik gabe.

Gainera, burgesiak eskura dituen esparruak baliatzen ditu, hezkuntza, familia, hedabideak... ideologia dominatzailea inposatuz, emakumearen jazarpen egoera nahiz klase ezberdintasunak bermatzeko. Esate baterako, emakumeari egokitu zaio familiako gainerako kideen zaintza lanaren ardura. Burgesiak bere diskurtso feministarekin emakume burgesen eta langileen arteko batasuna bultzatu du, bakoitzaren klase izaera baztertuz eta emakumearen askatasunaren aldeko borroka eta klase borroka bateraezinak direla sinetsaraziz. Hala ere, emakume burgesek beti jardungo dute kapitalaren interesen mesedetan, haien pribilegioak edota klase posizioa arriskuan jartzea ekiditearren.

Hori dela eta, klase feminismoa aldarrikatzen dugu, ezinbestekoa baitugu emakume langilearen aferari klase parametroetan aurre egitea, borroka feminista kapitalaren

kontrako borrokaren baitan kokatuz. Izan ere, sistema ekonomikoaren errotiko eraldaketak ahalbidetuko du bakarrik emakume langilearen nahiz langile ororen askatasuna.

Argi izan behar dugu borroka feminista ezin dela era isolatuan ulertu, borroka global iraultzaile baten parte bezala baizik. Horregatik, zapalkuntza harremanak suntsitzeko bidean, klase ikuspegitik jorratu behar dugu feminismoa, sexu-genero gatazka gainditu eta langile guztion parekidetasunean oinarrituriko gizartea eraikitzeko.

Horretarako abiapuntua klase feminismoa hezkuntza eta pedagogia kritikoaren bitartez hedatu eta aldarrikatzean kokatzen dugu, gizarte honetan indarrean dauden balore matxistak iraultzeko. Baina ezin gara feminismo instituzionalak babesten duen parekidetasun faltsuaren defentsan erori, marko kapitalistaren baitan emakumeek zenbait eskubide lortu arren, emakume langilearen zapalketak bere horretan iraungo baitu. Diskurtso idealetatik haratago, gizarte honen oinarriak irauliko dituen borroka klase feminismoaren esparruan garatu beharra dago hortaz.

Era berean, gogoan izan behar dugu klase feminismoaren baitan kokatzen garenez gero, militantziaren esparruan birproduzitu daitezkeen sexu-genero arteko dominazio harremanen kontrako jarrera irmo eta aktiboa garatu behar dugula. Horregatik, egunerokotasunean emakume eta gizonen arteko militantzia parekide bat sustatuko da, bai dinamika militanteetan, bai arlo politikoan. Etorkizunari itxaron gabe, gaurdanik burutu ditzakegu aldaketa asko zapalkuntzen amaierari begira, gure jardunaren baitan hasten baita aldaketa.

Internazionalismoa, zapalduon arteko elkartasuna

Elkartasuna dugu oinarri. Mundu osoko saiakera iraultzaileok eta zapalduok (langileok, herri zapalduok...) elkar babestu behar dugu. Koiunturak baldintzatzen gaituen neurrian, noski. Zentzu honetan ulertu behar dugu internazionalismoa, langile eta herri zapalduen arteko harreman gisa. Ondorioz, beste herrialde eta testuinguruetan garatzen diren prozesu iraultzaileei errespetu osoa zor diegu.

Elkar loturak beharrezkoak dira borroka iraultzaile orotan, eta argi dago gure testuinguruz kanpoko eragile iraultzaileen laguntza beharko dela sozialismoa munduan eraikitzeko. Horregatik, Euskal Herritik kanpoko mugimendu eta eragile iraultzaileekin harremanak mantentzea beharrezkoa ikusten dugu, prozesu iraultzaile bakoitza elkar-elikatu eta indartzeko.

Ekologismoa eta produkzio moduak

Azken hamarkadetan ekologismoaren gaiak garrantzi handia hartu du, gizartearen produkzio modu eta bizitza formaren ondorioz naturak pairatzen dituen kalteak areagotu direlako. Honekin batera, naturaren kontrako erasoek, langile klasearen bizi baldintzetan zenbait eragin izan dituzte. Lehengaien apropiazioa ziurtatzeko nazioarteko gerrak areagotu dira. Pertsonen arteko bizi baldintzak kaltetuak izan dira eragiten dugun

aldaketa klimatikoaren ondorioak direla medio. Honekin batera, lehengai fosiletan oinarrituriko produkzioa bermatzeko bidean etorkizuneko guda inperialistak planifikatzen ari dira, klaseen arteko desberdintasunak areagotuko dituzten eszenatoki politikoen atarian egonda. Honegatik, naturak pairatzen duen egoerak sistema kapitalistaren izaeran aurkitzen du bere oinarria, sistemak bermatzen duen produkzioaren ondorioz aipatutako kalteak sortu izan ditugulako.

Etengabeko hazkundera eta ekonomien arteko lehia oinarritzen den gizartea antolatu du kapitalismoak. Estatuak eta eragile ekonomikoek haien arteko lehia etengabea naturaren mugak kontuan hartu barik jarraitzen dute, horrela pertsonen eta izaki bizidunen etorkizuna kaltetuz. Lehengaien ustiaketa intentsiboa burutzen ari da etekin ekonomikoa eskuratzeko helburuarekin. Logika hauek gelditu ezean gure etorkizuna baldintzatuko duen egoera sortuko du, gure bizitza kondentatuz.

Ekologismoaren aldeko borroka, beraz, kapitalismoak planteatzen duen produkzio sistemaren baitan ulertu behar da, produkzio moduen eragina naturaren gaineko kaltearen erantzule zuzena baita. Horregatik, kapitalismoak maila ekologikoan planteatzen dituen kalteekin amaitzeko ezin gara konponbide partziala mugatu. Gizartearen sistema ekonomikoak antolatzen dituen formei alternatibak bilatzea beharrezkoa da.

Ekologismoaren aldeko borroka, produkzio formen aldaketa sakonetik bakarrik bideratu ahal da. Egun inposatuta dauden produkzio modu suntsitzaileak errotik aldatuta naturak pairatzen duen egoerari aurre egin diezaiokegu.

Prozesu honetan, inposaturiko produkzio moduei bideraturiko alternatibak ongi etorriak dira, merkatu alternatibo, burujabe edo bestelako produkzio forma ezberdinak sustatzen dituzten ekimenak barne. Berdina gertatzen da, proiektu txikitzaileen kontrako dinamikekin, azken hauek naturari zuzenean erasotzen dioten proiektuak baitira. Desarrollismoaren kontra agertzen gara, natura proiektu irrazional eta suntsitzaileez bete nahi dutelako Euskal Herria eta mundua. Hala ere, haratago jo behar dugu ekologismoaren aferan, aldaketa erradikalen bitartez bakarrik lortuko dugulako naturari egindako kalteak gelditzea eta gizarteari alternatiba iraunkorak eskaintzea.

Ondorioz, ekologismoaren aldeko borroka sozialismoaren baitan ulertzen dugu. Lehia eta etekina alboratzen duen ekoizpen moduak bermatuko du naturaren zaintza. Klase gizarte eta produkzio moldeen aldaketatik bakarrik lortu dezakegu ama lurak jasaten dituen erasoak etetea. Hala ere, kolektiboki aldaketak burutu ditzakegun modu berdinean, norberak ere aldaketak ezarri ditzake bere bizitzaren aspektu ugarietan. Baina argi dugu produkzio kapitalistak naturan eragin dituen ondorio latzak konpontzeko bidean sozialismoan oinarrituriko ekologismoa sustatu behar dugula.

<https://www.jardunkoordinadora.org/oinarri-ideologikoak/>